

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bilboko Udala****Behin betiko onartzea oinezkoen lehentasuneko eremuen Ordenantza**

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak adierazten du Bilboko Udalak 2022ko martxoaren 31an egindako ohiko batzarraldian behin betiko onartu dela oinezkoen lehentasuneko eremuen ordenantza.

«HITZAURREA

Orain aurkeztzen den Ordenantzaren xedea da Uriko oinezkoen lehentasuneko eremuak araudi egonkor eta iraunkor batez hornitzea, Uriko jardule desberdinen arteko bizikidetzakondizioak hobetu ahal izateko.

Horretarako, eta arau hau idatzi aurretik, zenbait parte-hartze bidezko prozesu ireki dira.

Prozesu horietako batean, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (HMJP) 2015-2030 onetsi zen.

Plan horrek, besteak beste, oinezkoen mugikortasunerako estrategia bat garatzen du, eta, bertan, honako helburu hauek ezartzen dira:

1. Oinezkoen interkonexioak hobetzea.
2. Oinezkoentzako bihurtzeko eredu efizienteak, ekitatiboak eta funtzionalak garatzea.
3. Mugikortasun bertikala hobetzen jarraitzea.
4. Semaforoen sistema optimizatzea.
5. Oinezkoen mugikortasunari lehentasuna ematea hirian.

Era berean, dokumentu horrek beharrezkotzat jotzen du oinezkoentzako ardatz iraunkor eta seguruak ezartzea, funtsezkoa baita oinezkoen mugikortasuna hobetzeko. Horrela, hiri-espazio irisgarriagoa, seguruagoa eta atsegina lortuko da herritar guztientzat, eta, neurri handiagoan, adinekoentzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat.

Ordenantza honek lehen mugarriz izan nahi du helburu horiek betetzera bideratutako jarduketan barruan, Uriko oinezkoen lehentasuneko eremuak erregulatuz eta, bereziki, Alde Zaharra Bilboko biztanleriaren % 2 inguru bizi da. Gure hiriaren bihotz historikoa ez ezik, Zazpi Kaleak Bilboko turismo, merkataritza eta ostalaritza jardueren gune handienetako bat dira.

Araua premisa batetik abiatzen da: oinezkoek lehentasuna duten eremuetan, oinezkoek dute lehentasuna; hortaz, oinezkoen segurtasuna bermatu behar da, zamalanak behar bezala kontrolatu eta administratu eta espazio horietarako sarbide ordenatua arautu, hori guztia ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegia oinarri.

1. Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

Hirietako eremu handiak, eta, zehazki, gure urikoak, oinezkoentzat jartzea fenomeno geldiezina da. Gero eta gehiago dira oinezkoentzat soilik irabazitako espazioak, bai eta oinezkoek ibilgailuekin partekatzen dituztenak ere —kasu horietan, lehentasuna dute oinezkoek, batzuen eta besteen interesek talka egiten badute—.

Beharrezkoa da bizikidetzak hori arautzea eta, beraz, eskubideen nagusitasuna zehaztea.

2. Ordenantza onesteko premia eta egokitasuna.

Udalak onartu nahi duen ordenantzak, batez ere oinezkoentzako kale eta eremuak erregulatuko dituenak, arau-esparru zehatza ezartzea du xede.

**3. Dekretuaren xedea.**

Horrenbestez, arauaren helburuak honela laburbil daitezke:

- a) Lehentasunez oinezkoentzat diren eremuak erregulatzea; hau da, ibilgailuak eta pertsonak elkarrekin ibiltzen diren eremuak erregulatzea, eta, horietan, oinezkoen eskubideak gailentzea, eskubide-talka gertatuz gero.
- b) Eremu horietarako ibilgailuen sarbidea ahalik eta gehien mugatzea, zirkulazio-neurri murriztaileak hartuta.
- c) Eremu horien erabilerari segurtasuna ematea.
- d) Kutsadura akustikoa eta ingurumen-kutsadura murriztea, bide-segurtasuna handitzea, zamalanak behar bezala kudeatzea eta egoiliarren eta haien zaintzaileen ibilgailuen joan-etorriak kudeatzea eremu horietan.
- e) Espazioa berreskuratzea zirkulazio askerako eta pertsonen arteko topaketarako, herritarren aisialdirako eta atsedenerako, eta, era berean, erraztea etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak eta bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lanaren kontziliazioa; bai merkataritza-jarduera handiko eremuetan, bai erregulazioaren xede diren kale, plaza eta espazioetan, non ibilgailuen zirkulazioaren aurrean bereziki kalteberak diren pertsonak unean-unean edo etengabe biltzeko aukera handiagoa baitago.
- f) Haurren autonomia sustatzea eta zainketa- eta laguntza-lanen karga murriztea, eta, horretarako, haien bide-segurtasuna babestea, eskola-bideak ezarrita.

I. TITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****Artikulu 1.— Xedea**

Ordenantza honen xedea da Bilbo Uriko oinezkoen lehentasuneko eremuen erabilera erregulatzea, non ibilgailuen zirkulazioa oso mugatua baita.

Artikulu 2.— Aplikazioaren lurralde-eremua

Ordenantza hau oinezkoen lehentasuneko eremuetan aplikatzekoa da. Behar bezala betetzen dela egiaztatzeko, sarreran eta irteeran matrikula automatizatuak irakurtzeko gailuak edo (ibilgailuen) sarbidea kontrolatzeko beste edozein sistema.

Artikulu 3.— Definizioak

Ordenantza honen ondoretarako, honela ulertzen dira ondoko hauek:

- a) Oinezkoen lehentasuneko eremua: Lehentasunez oinezkoen erabilerara zuzendutako espazioa, horrela aitortzen dena eta halakotzat seinaleztatuta dagoena. Kalifikazio hori berariaz onartu beharko da kale edo eremu bakoitzerako, organo eskudunaren erabaki edo ebazpen bidez, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- b) Baimena: Udalak emandako titulua, Ordenantza honetan aipatzen diren espazioetara ibilgailu motordunarekin sartzeko ahalmena ematen duena, Ordenantzan ezartzen diren baldintzetan.
- c) Auzokide-egoiliarra: "Oinezkoen lehentasuna" aitortua duen eremu edo kaleren batean erroldatutako pertsona fisikoa.
- d) Auzokide-merkataria: "Oinezkoen lehentasuna" aitortua duen eremu edo kale batean kokatutako merkataritza-establezimendu baten titularra (jabea, errentaria eta abar) den pertsona fisikoa edo juridikoa.



- e) Zama-bizikleta edo zama-trizikloa: Pedalen bidezko trakzioko bi, hiru edo lau gurpil dituen ibilgailua, gehienez 6 metroko luzera duena eta salgaiak garraiatzeko egokitutako espazioa duena. Laguntza elektrikoa izan dezake.
- f) Mugikortasun pertsonalerako ibilgailua (MPI). Gizakiari joan-etorri pertsonaletan laguntzeko gai den ibilgailua; bere eraikuntzagatik zikloen ezaugarriak gaindi ditzakeena eta motor elektrikoa duena. Kanpoan geratzen dira mugikortasun urriko pertsonak oinezkoentzako bideetatik joan-etorriak egiteko erabiltzen dituzten ibilgailuak.
- g) Gonbidatua: Egoiliarra ez den pertsona fisikoa, une jakin batean baimen bati atxikia.
- h) Gonbidapena: Egintza honen bidez, baimena duen pertsona batek bizileku ez den pertsona bati ibilgailu motordun batekin hemen erregulatutako eremuetara sartzeko aukera ematen dio, bere baimenaren babespean eta une jakin batean.
- i) Sarbidea: Ordenantza honetan erregulatutako eremuetan ibilgailu motordun batekin sartzea eta bertan egotea, Ordenantzan ezarritako denbora-mugekin.

Artikulua 4.— Ibilgailu motordunak zirkulatzeko eta bertan uzteko debekua

Oro har, eta ondorengo artikuluetan jasotzen diren salbuespenekin, debekatuta dago ordenantza honen xede diren bideetan mota guztietako ibilgailu motordunak ibiltzea, gelditzea eta aparkatzea.

Artikulua 5.— Gehieneko abiadura

1. Oinezkoen lehentasuneko eremuetan, ibilgailuak gehienez 10 kilometro orduko abiaduran ibiliko dira. Abiadura hori polizia-, osasun- edo suhiltzaile-ibilgailuek soilik gainditu ahal izango dute larrialdi-egoera dagoenean.

2. Eskumena duen organoaren erabaki edo ebazpen bidez, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, eremu bakoitzeko inguruabarretara egokitu ahal izango da abiadura hori.

Artikulua 6.— Pisu mugatzea

1. Gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailuak bakarrik sartu ahal izango dira eremu horietara, baldin eta 3,5 tonatik gorakoak ez badira. Hala ere, Udalak pisu-muga desberdinak ezarri ahal izango ditu, eremu edo kale horretan dauden merkataritza-lokalen logistika-premiak kontuan izanda, betiere eremu horietako lurzoria pisu handiagoei eusteko egokia bada.

2. Udalak berriaz baimendu beharko du baimendutakoa baino pisu handiagoa duten ibilgailuen sarrera puntuala, eta egokitzat jotzen dituen baldintzak ezarriko ditu.

3. Organo eskudunaren erabaki edo ebazpen bidez, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, tona kopuru hori eremu bakoitzeko inguruabarretara egokitu ahal izango da.

Artikulua 7.— Emisioen bereizgarria

1. Araututako gune batera sartzeko baimena daukaten zamalanetarako ibilgailuek etiketa hauetako bat eduki beharko dute:

- a) 0 emisioen etiketa, urdina; eta Eco etiketa.
- b) C etiketa, berdea; eta B etiketa, horia.

2. Mugikortasun- eta jasangarritasun-politika berriak ezarri, edo DGTaren edo estatuko edo Europako antzeko erakunde baten bereizgarri berriak aldatzeko, Alkatetzak sailkapena eguneratu ahal du, ebazpen baten bidez. Ebazpen hori udal webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Artikulua 8.— Beste muga batzuk

Inola ere ez da baimenik emango zona honetako edozein kaletan oinezkoen edo bizikleten zirkulazioa edo ibilgailu motordunen sarbidea galarazten duten terrazak jartzeko.



Kale bakoitzaren ezaugarrien arabera, ibilgailuen sarbideari beste muga batzuk ezarri ahal izango zaizkio (altuera, luzera,...).

Artikulu 9. — Kontrola eta seinaleak

1. Ordenantza honen xedeetarako, batez ere oinezkoentzako eremuetan, irudiak hartzen dituzten matrikulak irakurtzeko gailuak instalatu ahal izango dira, edo (Ibilgailuen) sarbidea kontrolatzeko beste edozein sistema.

2. Horrez gain, eremu horien sarreretan seinale bertikalak jarriko dira.

Artikulu 10. — Autotaxi eta Ibilgailu gidaridunak (IG)

1. Autotaxi-ibilgailuak eta ibilgailu gidaridunak (IG) oinezkoen lehentasuneko eremuetara sartu ahal izango dira zerbitzuak ematen ari direnean, bidaiariak jaso eta uzteko, betiere egoerak horretarako aukera ematen badu eta Udalak berriaz debekatzen ez badu.

2. Udalak ordutegi-murrizketak edo bestelakoak ezarri ahal izango ditu.

Artikulu 11. — Bizikletak eta Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak (MPI)

1. Ibilgailu horiek ezin izango dute oinezkoen lehentasuneko eremuetan zirkulatu, berriazko gaikuntzarik izan ezean. 12 urtetik beherako pertsonak, haien guraso-ahala duten pertsonen erantzukizun eskusiboaren pean, Bilboko oinezkoen eremu, plaza eta parkeak erabili ahal izango dituzte bizikletaz ibiltzeko, gune horietan dauden pertsonen kopuruak horretarako aukera ematen duenean. 7 urtetik beherakoak badira, espaloietatik bizikletaz zirkulatu ahal izango dute, adinez nagusi den pertsona baten ardurapean, betiere oinezkoen abiaduran zirkulatzen badute eta haiei eragozpenik sortu gabe.

2. Oinezkoen lehentasuneko eremuetako bizikleta-mugikortasunari eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei (MPI) dagozkien salbuespenak organo eskudunaren erabakian edo ebazpenean jasoko dira, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, kalifikazio hori emateko. Egoera bakoitzean, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dira:

a) Esparru horretan, Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zerbitzu teknikoek egindako txostenean oinarrituko da akordioa edo ebazpena.

b) Ibilgailu horien zirkulaziori ordutegi-murrizketak ezarri ahal izango zaizkio.

c) Hala ere, gutxienez 1,5 metroko tartea beste pertsonekin, edo atarietatik eta eraikinen sarbideetatik 1,5 metro baino hurbilago zirkulatu behar denean. Nolanahi ere, espazio horietatik zirkulatzen ari direnek segurtasun-neurriak zorrotzko dituzte, oinezkoen mugimendura egokituta eta oinezkoen artean sigi-saga ibiltzea saihestuta; oinezko horiek daramaten gutxi gorabeherako abiadura baliatuko da haiek aurreratzeko, eta, gutxienez, metro eta erdi bateko (1,5 m) tartea utzita.

2. KAPITULUA**BAIMENIK BEHAR EZ DUTEN IBILGAILUAK.****Artikulu 12. — Larrialdi-zerbitzuetako eta zerbitzu publikoetako ibilgailuak**

1. Larrialdi-zerbitzuei atxikitako ibilgailuak (suhiltzaileak, polizia, ambulantiak, etab.) Ordenantza honen xede diren eremuetara sartu ahal izango dira, ordutegi-mugarik gabe, baldin eta xede dituzten zerbitzuak ematen ari badira.

2. Interes orokorreko zerbitzu publikoak ematen dituzten ibilgailuak (gasa, ura, sa-neamendua, elektrizitatea, etab.) gune horietara sartu ahal izango dira konponketaren premiagatik beharrezkoa denean. Kasu horietan, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari jakinarazi beharko dizkiote, hurrengo bi egun baliodunetan, honako hauek: matxura mota, sartzeko eta irteteko ordua eta ibilgailuaren matrikula.

3. Matxura konpontzea premiazkoa ez bada, nahitaezko baimena eskatuko da bertan sartzeko.

**Artikulu 13. — Garraio publiko kolektiboko ibilgailuak**

Garraio publiko kolektiborako ibilgailuak Udalak ezarritako ibilbide eta ordutegietan soilik ibiliko dira.

Artikulu 14. — Laguntza-ibilgailuak

Kasu bakoitza banaka kudeatuko da zerbitzuak emateko ibilgailuak mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako laguntza-zentroetara sartzeari dagokionez, premien eta kokapenaren arabera.

II. TITULUA**OINEZKOEN LEHENTASUNEN EREMUETAN
IBILGAILU MOTORDUNENTZAKO BAIMENAK****1. KAPITULUA****BAIMEN MOTAK****1. ATALA****OINEZKOEN LEHENTASUNEN EREMUEN ARAUBIDE OROKORRA****Artikulu 15. — Baimena**

1. I. tituluko 2. kapituluaren adierazitako ibilgailuen kasuan izan ezik, Udalaren baimena behar da oinezkoen lehentasuneko guneetan zirkulatzeko. Baimen hori interesdunak eskatuta emango da, Ordenantza honetan jasotzen diren betekizun eta baldintzekin.

2. Baimena emateak ez du tasarik sorraraziko, salbu eta ordenantza fiskal egokiak besterik agintzen badu.

3. Baimenak prekarioan ematen dira, eta ez dute titularraren aldeko eskubiderik sortzen; horrenbestez, libreki baliogabetu ahal izango dira, kalte-ordainik edo konpentsaziorik gabe, zirkulazioaren edo interes publikoko beste inguruabar batzuek hala gomendatzen badute.

Artikulu 16. — Auzokide-egoiliarak

1. Auzokide-egoiliarrei baimena eman ahal izango zaie beren ibilgailuarekin kalera sartzeko, kasu bakoitzean ezarritako ordutegian eta baldintzetan.

2. Baimen horren eraginkortasuna eten egingo da Udalak baimendutako ekitaldiak egin eta sarbidea murrizteko neurriak hartzen direnean (Aste Nagusia, Inauteriak, kirol-probak, etab.).

3. Honako hauek dira baimen horien ezaugarriak:

3.1. Baimen bakarra emango da bizileku bakoitzeko, eskatzailearen izenean –adinez nagusia eta eremu horretan erroldatua–.

3.2. Baimen bakoitzari sarrera kopuru bat esleitu zaio urtean. Kopurua eta erabileraren baldintzak urtero ezarriko dira organo eskudunaren erabaki edo ebazpen bidez, eta Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Ez bada hori egiten, luzatutzat joko dira aurreko urtekoak.

Edozein aldaketa txosten tekniko justifikatuan oinarritu behar da, oinezkoen lehentasuneko eremuetako erabiltzaile guztien bide-segurtasuneko irizpideei jarraikiz, eta zehatzago honako hauei:

– Inguruko istripu-tasa

– Eskola-bidearen gaineko eraginak

– Kaleetan dagoen oinezkoen dentsitatea, pasekoa zein estantziala izan

– Trafikoaren batez besteko intentsitate ertaina edo puntako ordukoa

– Mugikortasunari, bide-segurtasunari eta ingurunearen ingurumen-jasangarritasunari dagokienez interesekotzat jotzen diren gainerakoak.



Hauek dira hasierako baldintzak:

- a) Baimen bakoitza bi ibilgailurentzako izan ahalko da, gehienez. Ibilgailu biak eskatzailearenak izan beharko dira, jabetzan, rentingean, leasingean edo enpresak lagata, atal honetako g) ataleko salbuespenarekin.
 - b) Baimen berera atxikitako ibilgailuen multzoak gehienez lau aldiz sartu ahal izango dute hilabete natural bakoitzeko.
 - c) Ezin izango da eremu erregulatura sartu, baimen berari atxikitako beste ibilgailu bat eremu horren barruan dagoen bitartean.
 - d) Ibilgailu horiek 08:00etatik 11:00etara sar daitezke, asteko egun guztietan.
 - e) Sartzan den bakoitzean, gehienez ere 30 minutuz egon ahal izango da eremu erregulatuan.
 - f) Bizileku bakoitzerako, urte naturalean 48 aldiz sartu ahalko da, gehienez.
 - g) Sarrera kopuru horrekin, egoiliar ez den pertsona baten ibilgailu bat gonbidatu ahal izango da, aurreko puntuetan jasotako baldintzetan. Baimen bakoitzeko bi ibilgailuren gehieneko muga mantenduko da beti; beraz, bi matrikulak jada lotuta izanez gero, matrikula horietako bati baja eman beharko zaio gonbidatuaren ibilgailuari alta eman ahal izateko.
Gonbidapen hori egun eta ordu jakin baterako egingo da, eta hilabete horretarako sarrera gisa zenbatuko da.
 - h) Ezin izango da eremu bereko bizilagun baten ibilgailua gonbidatu.
 - i) Ezin da matrikula bera behin baino gehiagotan gonbidatu egun berean.
- 3.3. Oro har, bizileku batean mugikortasun-arazoak dituen pertsona bat bizi bada —Udaleko osasun-zerbitzuen aurrean horrela egiaztatuta— honako baldintza hauek aplikatuko dira:
- a) Sarbide-kontrolerako, etxeko bi matrikuletako bat txartel horri lotu ahal izango zaio.
 - b) Matrikula horretarako ez da egongo sartzeko mugarik hilabete eta urtean, ezta ordu-mugarik ere.
 - c) Sarrera puntaletarako beste matrikula bat “gonbidatu” ahal izango da (gonbidapen bat sarrera bakoitzeko), artikuluko honetako 3.2 puntuan adierazitako moduan. Kasu bakoitzean, gonbidatuaren ibilgailuaren matrikula eta gonbidapenaren eguna eta ordua zehaztu beharko dira.
 - d) Baldintza horiek mugikortasun-arazoak dituen pertsona lekualdatzeko sartzan denean baino ez dira aplikatuko.

Artikulua 17.— Auzokide-merkatariak

1. Auzokide-merkatariak baimen bat eskatu ahal izango dute beren sarrera kopurua erabiltzeko. Baimen hori beren ibilgailurako erabili ahal izango dute, edo beste ibilgailu batzuk gonbidatu.
2. Sarrera kopurua auzokide-egoiliarrentzat ezarritako berbera izango da, kopuruei eta erabilera-baldintzei dagokienez.

Artikulua 18.— Salgaien banaketa hirian, zama-lanak

1. Eremu horietan zamalanak egiteko, oro har, baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Bi eserlekuko ibilgailu mistoak, furgonetak eta kamioiak —gehienez, 3,5 tonako GMB (Gehieneko Masa Baimendua)— sartu ahal izango dira.
 - b) Egunean behin bakarrik sartu ahalko da, 08:00etatik 11:00etara, lanegun diren astelehenetatik zapatuetara; eta, gehienez ere, 30 minutu egon ahalko da bertan. Orduetegi horiek aldatu ahalko dira, aintzat hartuta eskaera, jardueren kopurua eta horien tipologia, oinezkoen lehentasuneko gunetik kanpoko alternatibak, eta jarduerak zelan eragiten dien oinezkoen joan-etorriei.



2. Modu berean, salgaiak bizikletaz, bizikargoz edo trizikloz banatu ahalko dira, eta ez dira bete beharko aurreko paragrafoetan ezarritako ordutegi-murrizketak.

Artikulua 19. — Erregulatutako eremuetan dauden garajeetarako sarbidea

1. Edozein unetan eta ordutegi-mugarik gabe, Ordenantza honen xede diren eremuetan dauden garajeetara sartzeko baimenak eman ahal izango dira. Baimen horiek ez dute, inola ere, gune edo kale erregulatuan aparkatzeko ahalmenik ematen.

2. Auzokide-egoiliarren kasuan, sarrera horiek ez dira zenbatuko bizilekuari lotutako sarrera kopuruaren kudeaketan.

3. Udal aparkalekuei dagokienez, baimendutako matrikulak Mugikortasun eta Ja-sangarritasun Saileko zerrendetan halakotzat jasotakoak izango dira.

4. Aparkaleku pribatuen kasuan, partzelaren erabiltzaileak eskatu ahal izango du baimena, partzelaren edozein tituluren bidez, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan. Baimenari gehienez ere bi ibilgailu lotu ahal izango zaizkio plaza bakoitzeko. Plaza hori baimendutako ibilgailu batek okupatuta dagoela ageri bada, ezingo da sartu baimenari atxikitako beste ibilgailua.

2. ATALA**SALBUESPENAK****Artikulua 20. — Ostalaritza**

1. Oinezkoen lehentasuneko eremu edo kaleetan dauden hotel eta ostatuetako bezeroen ibilgailuak (pisu turistikoak kanpo geratzen dira) establezimendu horrek duen baimenarekin sartu ahal izango dira, ez bada jada badutela aparkatzeko erreserba bat.

2. Baimen horri matrikula bakarra lotu ahal izango zaio, eta establezimenduak gonbidatu egin beharko du, Artikulua 24.7 artikuluan (Sartzeko baimenak) ezarritako moduan.

3. Ibilgailuak ezingo dira 15 minutu baino gehiago egon erregulatutako eremuan edo kalean.

4. Establezimenduaren kokapenaren ezaugarrien arabera, sartzeko baldintza espezifikokoak ezarri ahal izango dira (ibilbideak, egun- eta ordutegi-mugak, etab.), edota sarbide hori ez baimendu. Baldintzak irizpide hauen arabera aldatuko dira:

- Ostalaritza-establezimenduko ibilgailuen sarbide-eskaera baino lehenagotik ibilgailu horiek igarotzea eragotz dezaketen baimenak emanda egotea.
- Udalaren baimena duten obrak edo ekitaldiak.
- Ezin denean bermatu oinezkoen eta ibilgailuen arteko bide-segurtasuna, oztoporik gabeko zabaleran, ibilgailuak egin behar duen ibilbidean.
- Eskatutako ibilgailuen joan-etorria ez denean bateragarria beste inguruabar berezi batzuekin.

Artikulua 21. — Ibilgailuak konpontzeko tailerrak

1. Oinezkoen lehentasuneko eremuetan dauden ibilgailuak konpontzeko tailerren bezeroak beren ibilgailuekin sartu ahal izango dira establezimenduak duen baimenarekin.

2. Ibilgailuak ezin izango dira kasuan kasuko eremu edo kale horretan aparkatu.

Artikulua 22. — Salbuespeneko kasuak

Ordenantza honetan jasotzen ez diren kasuak, interes publikoko edo presazko arrazoiak daudenean, unean uneko baimenen bidez ebatziko dira.

Artikulua 23. — Mugak

Ordenantza honek arautzen dituen oinezkoen lehentasuneko zonetan, eskola-bideak jarri direnean, ibilgailu motordunen sarbidea eragotzi edo murriztu ahal izango da, araudi espezifikokoan jasotako ordutegiaren barruan.



2. KAPITULUA

BAIMENEN ARAUBIDE JURIDIKOA**Artikulu 24. — Sartzeko baimenak**

1. Ordenantza honetan aipatzen diren baimenak Udalari eskatuko zaizkio, inprimaki ofiziala beteta. Horrekin batera, eskaera justifikatzen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira (jabea, errentaria, etab.). Baimena automatikoki berrituko da, baldin eta hura eman zeneko baldintzak mantentzen badira.
2. Eskabideak aurrez aurre edo administrazio publikoek gaitutako bitarteko telematikoen bidez aurkeztu ahal izango dira.
3. Organo eskudunak ebatziko ditu eskabide horiek, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren.
4. Bizileku, merkataritza-jarduera edo garaje-partzela bakoitzari emandako baimenetan, titular bakarra agertuko da.
5. Udalak ofizios egiten dituen berrikuspenak alde batera utzi gabe, baimena duten pertsonak Udalari jakinarazi beharko diote nahitaez baimena ematean kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik egonez gero.
6. Udalak baimendutako matrikulak jasoko dituen "datu-base" bat sortuko du. Baimenen titularrek haiei atxikitako matrikulak aldatu ahal izango dituzte, Udalak haien esku jartzen dituen bitartekoen bidez. Udal-partzelei lotutako matrikulen kasuan, Udala izango da horiek aldatu ahal izango dituen bakarra.
7. Gonbidapenak egun eta ordu jakin baterako egingo dira, eta sisteman erregistratu beharko dira, data hori baino lehen edo ondorengo bi egun baliodunetan.
8. Sarbidea kameraren bidez kontrolatzeko sistema bat gaitzen den unean, kapitulu honetako 2. atalean (Salbuespenak) aipatzen diren ostalaritzako eta tailerretako ibilgailuentzako baimenak ez zaizkio matrikula jakin bati lotuko. Titularrek, kasu bakoitzean, ibilgailuaren matrikula eta sarrera-data adierazi beharko dituzte. Informazio hori aldeztu aurretik emango da, edo, ondoren, bi egun balioduneko epean, sarrera hori egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Artikulu 25. — Baimenaren erabilera

1. Sarbide-baimenaren onuraduna da hura ongi erabiltzearen arduraduna, eta hari dagokio araudi hau betetzea.
2. Bizilekuan edo ibilgailuan aldaketak egiten badira, onuradunak berehala jakinarazi beharko dizkio Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari.

Artikulu 26. — Baimena iraungitzea eta baliogabetzea

1. Baimenak honako kasu hauetan iraungiko dira:
 - a) Baimenaren aldia amaitzen denean.
 - b) Titularrak dagokion eremuan edo kalean bizilekua edo garaje-plaza izateari uzten dionean, salbu eta baimenaren titulartasuna bere gain hartzen duen eta, jakina, Ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen dituen beste interesdun bat edo batzuk badaude.
 - c) Baimenaren titularra hiltzen bada, salbu eta baimenaren titulartasuna bere gain hartzen duen eta, jakina, Ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzen dituen beste interesdunen bat edo batzuk badaude.
 - d) Baimena ematea eragin zuten beste edozein baldintza aldatzen direnean.
2. Baimen horri atxikitako onuradunetako batek baimena bidegabe erabiliz gero, arau-hauslearen ibilgailua baimenik gabe geratuko da urtebetez, aurrez kontraesan-espeditante bat hasita, eta hala dagozkion zehapenak ezartzeari kalterik egin gabe.
3. Berrerortzea gertatuz gero, behin betiko kenduko da baimena.

**III. TITULUA****ALDE ZAHARREKO ARAUBIDE BEREZIA****Artikulua 27. — *Esparru geografikoa***

Alde Zaharreko oinezkoen lehenetako eremuaren zirkulazio-erregulazioari dagokion esparru geografikoak honako kale eta plaza hauek hartzen ditu: Askao, Miguel Unamuno plaza, María Muñoz, Erronda, Somera, Artekale, Gurutze, Zamudioko Atea, Dendarikale, Done Jakue plazatxoa, Done Jakue karrera, Belostikale, Arategizar, Barrenkale, Barrenkalebarrena, Dorre kalea, Txakur kalea, Andra Maria, Jardines, Kale Barria, Pilota kalea, Mesedeetako kalea, Bidebarrieta, Viktor kalea, Kapelagile kalea, Gerrikogin kalea, Posta kalea, Espainiako Bankua, Loteria, Foruak, Goikolau Kobaren kalea, Altxerri Kobaren kalea, Libertate kalea, Ekain Koben kalea, Santimamiñe Kobaren kalea, Mitxel Labegerie kalea, Alejandro de la Sota kantoia, Julian Etxebarria "Kamaroi" kantoia, San Nikolas plazatxoa, Bilboko Bankua, Plaza Barria, Itxaropen kalea, Estufa zeharkalea eta Iturribide (zenbaki bikoitiak: 2tik 44ra / zenbaki bakoitiak: 3tik 33ra).

(I. eranskina).

Artikulua 28. — *Auzotarrak eta merkatariek sartzea*

1. 16.3.2 d) artikuluko ordutegia ez da aplikatuko Zazpi Kaleetan. San Nikolas plazatxoa-Askao-Unamuno plaza ardatzean izan ezik, auzotarrek egunero sartu ahalko dute Zazpi Kaleetara, 8:00etatik 11:00etara; igande eta jaiegunetan, berriz, 18:00etatik 23:00etara sartu ahalko dute, eta lanegun diren astelehenetatik ostegunetara, 21:00etatik 23:00etara bitartean. Dena dela, mantendu egiten dira artikuluko horretako gainerako mugak.

2. Salbuespenez, eta arrazoitutako eskabide bati erantzuteko, auzotar merkatariek araututako gunera sartu ahalko dute beren ibilgailu partikularrarekin, 7. artikuluan adierazitako etiketa jarrita, ezarritako pisua gainditzen ez badute eta aurreko atalean finkatutako ordutegi barruan.

Artikulua 29. — *Eskola-bidea*

1. 8:30-09:15 tartean, Erronda eta María Muñoz kaleek osatzen duten korridorea, eta 08:00-09:30 tartean, Mesedeetako kaleak eta Andra Maria kaleak osatzen dutena, oinezkoentzat eta bizikletentzat soilik izango dira, García Rivero eta Mugika ikastetxeetako ikasleen segurtasuna bermatzeko.

2. Murrizketa horiek indarrean egongo dira irailetik ekainera bitarteko eskola-egunetan. Andra Maria kalerako ezarritako murrizketak soilik mantenduko dira urte osoan.

3. Erronda kalean motordun ibilgailuak sartzeko murrizketak eta eskola-bideen ordutegia (oinez nahiz bizikletaz) eta kale horretako anbulatorioaren zerbitzua bateragarriak izan daitezzen, osasun-establezimendu horretan sartzeko baldintza bereziak ipini ahalko dira (ibilbideak, egunen eta ordutegi mugaketa, eta abar).

4. Eskola-bidean dauden ibilgailu motordunentzako sarbide-murrizketak alda daitezke, baldin eta bide berriak sortzen badira.

Artikulua 30. — *Salgaien banaketa hirian, zama-lanak*

1. Oro har, eremu honetan, ibilgailu motordunek lanegunetan zirkulatuko dute merkantzien zamalanak egiteko, astelehenetik larunbatera, 8:00etatik 11:00etara bitartean.

2. Bi eserlekuko ibilgailu mistoak, furgonetak eta kamioiak (gehienez, 5,5 tonako GMB) soilik erabiliko dira, eta, gutxienez, emisioen B kategoriako bereizgarria eta 2,90 m baino gutxiagoko altuera izan beharko dute —azken kasu horretan, besterik ez badago salbu—.

3. Alde Zaharreko eremura sarrera bakarra egon ahalko da egunean, gehienez ere 30 minutukoa, horretarako adierazitako espazioen barruan, eta kalearen alde batean aparkatu beharko da, bizitegi-eraikinetarako, hezkuntza-, osasun- eta osasun-establezimenduetarako eta antzeko beste batzuetarako sarbidea ez eragozteko edo oztopatzeko



moduan. Hala ere, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari denbora hori luzatzea eskatu ahal izango zaio, arrazoituta eta, gutxienez, honako hauek adierazita: kasu bakoitzean zer saltokiri emango zaion zerbitzua eta baliatuko den gutxi gorabeherako denbora.

4. Merkantziak bizikletekin, zama-bizikletekin edo zama-trizikloekin banatzeko, ez dira bete beharko aurreko paragrafoetan ezarritako ordutegi-mugak. Ibilgailu horiek 10 km orduko abiaduraren azpitik ibili beharko dute. Oinezkoak badaude, abiadura haien abiadurara egokitu beharko da, eta ez da inoiz sigi-saga ibiliko.

Artikulua 31. — Terrazak eta mahaitxoak

1. Oinezkoen eremu eta kaleetan, mahaiak, terrazak eta mahaitxoak jartzeko ordutegia ez da hasiko zamalanak amaitu eta ordu erdi geroagora arte.

2. Inola ere ez da baimenik emango zona honetako edozein kaletan oinezkoen edo bizikleten zirkulazioa edo ibilgailu motordunen sarbidea galarazten duten terrazak jartzeko.

Artikulua 32. — Sarbidea erregulatzea San Nikolas plazatxoan-Askao-Unamuno plaza ardatzean

1. Alde Zaharra eta Prim kalea barne hartzen dituen aparkatzeko eremu erregulatuko bereizgarriaren titularrek, udal-zerbitzuetako ibilgailuek, autotaxiek, ibilgailu gidaridunek (IG), polizia-ibilgailuek, laguntza-zerbitzuan diharduten anbulantziek, bizikletek, zama-bizikletek eta zama-trizikloek, Prim kaleko garajeetara doazen ibilgailuek eta premia larria dela-eta hala egin behar dutenek ardatz horretan zirkulatu ahal izango dute.

2. Unamuno plazan eta Prim kalean dauden zamalanetarako eremuak erabiltzeko baimena duten ibilgailuak ere sartu ahal izango dira (2 eserlekuko ibilgailu mistoak, furgonetak eta kamioiak –5,5 tonatik beherako GMB), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik larunbatera, lanegunetan.

3. Zamalanak egiteko baimendutako ordutegiaren barruan, Alde Zaharreko oinezkoen lehentasuneko eremuan zamalanak egin behar dituzten ibilgailuek ardatz horretan zirkulatu ahal izango dute.

4. Azkenik, Prim kalean, Unamuno plazaren eta Aurrekoetxea kalearen artean, bizi diren auzotarrei baimena emango zaie ardatz horretatik igarotzeko urtean 48 aldiz, hilean 4 aldiz, 16. artikuluan ezarritako baldintzetan eta Ordenantza honetako 28.1 artikuluko ordutegian.

Artikulua 33. — Bizikletak eta Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak (MPI)

1. Bizikleta eta MPI bidezko mugikortasuna baimenduta egongo da Alde Zaharrean. Hala ere, gainerako pertsonekin, gutxienez, metro eta erdiko (1,5 m) tartea mantendu ezin denean, ibilgailu horiek gidatzen dituztenak jaitsi eta oinez jarraitu beharko dute, ibilgailuak eskuan dituztela. Nolanahi ere, espazio horietatik zirkulatzen ari direnek segurtasun-neurriak zorrotzko dituzte, oinezkoen mugimendura egokituta eta oinezkoen artean sigi-saga ibiltzea saihestuta; oinezko horiek daramaten gutxi gorabeherako abiadura baliatuko da haiek aurreratzeko, eta, gutxienez eta erdiko, (1,5 m) tartea utzita.

2. Ekitaldi jendetsuak egitean edo egun jakinetan, hala nola, San Tomas egunean, Inauterietan, Aste Nagusian, kirol-probetan eta abarretan, bizikleta eta MPI bidezko mugikortasuna partzialki edo osoki murriztu ahal izango da.

3. Udalak ordutegiak edo bestelako murrizketak ezarri ahal izango ditu, beharrezkotzat joz gero.

4. Nolanahi ere, bizikleta eta MPI bidezko mugikortasunari buruzko baldintzen aldaketak txosten tekniko arrazoitu batean oinarrituko dira, bide-segurtasuneko irizpideen arabera, eta zehatzago, hauen arabera:

- Inguruko istripu-tasa.
- Eskola-bidearen gaineko eraginak.
- Kaleko oinezkoen dentsitatea.
- Puntako orduen batez besteko intentsitatea.



— Mugikortasunari, bide-segurtasunari eta ingurunearen ingurumen-jasangarritasunari dagokienez interesekotzat jotzen diren gainerakoak.

Artikulu 34. — Ostalaritza

Ordenantza honetako 20. artikuluan aipatzen diren baimenek ibilbidea, egunak eta baimendutako ordutegia jaso beharko dituzte —egoiliarrena bezalakoa izango da—, bai eta sarbiderako beste baldintza batzuk ere, establezimendu bakoitzaren kokapenaren ezaugarrien arabera.

Artikulu 35. — Alde Zaharrera sartzeko txartel berezia

- a) Bizileku batean “desgaitasunak dituzten pertsonentzako aparkatzeko txartela” duen norbait badago, Zazpi Kaleetara sartzeko txartel berezia eskatu ahal da, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailean.
- b) Sarbide-kontrolerako, etxeko bi matrikuletako bat txartel horri lotu ahal izango zaio.
- c) Matrikula horri ez zaio aplikatuko minutuen muga, ez eta urte bakoitzean zenbat aldiz sar daitekeen ere.
- d) Sarbide puntaletarako, beste matrikula bat “gonbidatu” ahal izango da (gonbidapen bat sarbide bakoitzeko), 16. artikuluko 3.2 apartatuan adierazitako moduan. Kasu bakoitzean, gonbidatuaren ibilgailuaren matrikula eta gonbidapenaren eguna eta ordua zehaztu beharko dira.
- e) Baldintza horiek txartelaren titularra lekualdatzeko sartzen denean soilik aplikatuko dira.

IV. TITULUA
ZEHAPEN-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
ARAU-HAUSTEAK

Artikulu 36. — Xedapen orokorrak

1. Ordenantza honen aurkako ekintzak edo ez-egiteak administrazioko arau-haustek izango dira, eta Ordenantzan aurreikusitako moduan zehatuko dira.
2. Arau-haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

Artikulu 37. — Arau-hauste arinak

1. Arau-hauste arinak dira Ordenantza honetan jasotako arauak ez betetzea, baldin eta berariaz arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez badira hurrengo artikuluetan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan tipifikatutakoak, eta, gainera:
 - a) Ez jakinaraztea Udalari baimena ematean kontuan hartutako inguruabarretan egon daitezkeen aldaketak, horrek baimena baliogabetzea ez badakar.

Artikulu 38. — Arau-hauste astunak

Arau-hauste astunak dira, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan horrela tipifikatutakoez gain, delituak ez direnean, honako hauek:

- a) Oinezkoen lehentasuneko eremuetan mota guztietako ibilgailuek duten zirkulatze-ko debeku orokorra eta eremu horietako salbuespenen araubide berezia urratzea.

**Artikulu 39. — Arau-hauste oso astunak**

Arau-hauste oso astunak dira, delituak ez direnean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan horrela tipifikatutako jardunbideak.

**II. KAPITULUA
ZEHAPENAK****Artikulu 40. — Motak**

Arau-hauste arinak 60 euroko isunarekin zehatuko dira; astunak, 200 euroko isunarekin, eta oso astunak, 500 euroko isunarekin, salbu eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak arau-hauste jakin batzuetarako beste zehapen batzuk aurreikusten baditu.

**III. KAPITULUA
ERANTZUKIZUNA****Artikulu 41. — Erantzuleak**

Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako arau-hausteen erantzukizuna arau-haustea egin duen pertsonari dagokio zuzenean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako salbuespenekin.

**IV. KAPITULUA
ZEHAPEN-PROZEDURA****Artikulu 42. — Prozedurazko bermeak**

Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteengatik ezin izango da inolako zehapenik ezarri, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan eta Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren alorreko zigor prozedurari buruzko araudia onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera izapidetutako prozeduraren bidez ez bada.

Artikulu 43. — Eskumena

Ordenantza honetan aipatzen diren espazioetan egindako arau-hausteak zehatzeko eskumena Alkatetzari dagokio, edo alkatetzak eskuordetutako organoari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK**Xedapen Gehigarriak Lehenengoa**

Aste Nagusia, San Tomas merkatua eta jende-pilaketa handia eragiten duten beste ekitaldi batzuk egiten diren bitartean, erabat edo partzialki debekatu ahal izango da oinezkoen lehentasuneko eremuetan zirkulatzea, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikuluko f) letran ezarritakoaren babesean, zeinak udalerriak gaitzen baititu behar denean hiriko bideak ixteko.

Xedapen Gehigarriak Bigarrena

Ingurumen-etiketa lortzeari buruz 7. artikuluan ezarritako betekizunari dagokionez, hiru urteko luzamendua ezartzen da, indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

**Xedapen Gehigarriak Hirugarrena**

Mugikortasun eta Iraunkortasun Sailari buruzko aipamenak, beste izendapen bat izanda ere mugikortasunaren arloko eskumenak bere gain hartzen dituen sailari buruzkoak direla ulertuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Alde Zaharreko oinezkoen lehentasuneko eremurako aurrez emandako txartel bereziek sei hilabetez izango dute balioa, nahiz eta Ordenantza honetan ezarritako baldintzekin bat ez etorri.

Epe hori amaitu baino lehen, titularrek Ordenantza honetan xedatutako baldintzekin bat datorren baimena eskatu beharko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Alkatetzaren 2014ko azaroaren zazpiko Ebazpena, Alde Zaharreko Oinezkoen Eremua erregulatzen duena, bai eta honako Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka dauden edo horrekin kontraesanean dauden gainerako xedapen guztiak ere, izan arau-maila berekoak edo txikiagokoak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2022ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.»

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal da, administrazioarekiko auziekiko epaitegietatik dagokion hartan, hilabete biko epean, jakinarazpena jasotzen den dataren biharamunetik hasita. Hala xedatzen dute Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 8. eta 46. artikuluek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c) artikulua.

Aipatutako epe guztiak iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko dira.

Bilbon, 2022ko apirilaren 11n.—Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotzi ordezkaria